



agenda GOGOAN HARTU museoak **data:** Uztailak 30. **ordua:** 11:00etan. **Lekua:** Kulturgunea, Orereta.

"Txinguin" antzerkia, Kilimaren eskutik

Viernes, 30 de Julio de 2010 - Actualizado a las 04:29h.

KETARRI taberna kitar-doinu psikodelikoz beteko da gaurko gauean, 23:00etan, Surfin Kaos eta Lobo Electrico taldeen musikarekin. Xspressionk zirkuituaren barnean egingo dira bi kontzertuok kantauri itsasoari begira eta Getariako arratoiaren bizkarrean dagoen txokoan. Sarrerak 5 euro balioko du.

Surfing Kaos eta Lobo Electrico

Sagardoetxea Astigarraga

SAGARDOETXEA bezalako leku gutxi dago. 32 euroren truke erakusketa ikusi eta mahai inguruan amaitzen du bisitariak sagardotegiko menu bat probatzen. Azken batean, Astigarragako identitate zeinu izateaz gain, euskal gastronomiaren ikurretako bat den edaria ezagutzeko parada eskaintzen du museoak.

MUSIKAZ, kantuz eta dantzaz beteriko haurrentzako antzezlan ikusgarri eta emozioz betea eskaintzen du Kilima antzerki taldeak. *Txinguin* izena du obrak, eta Jone izeneko neskato batek bere maskotaren gurasoak aurkitu nahian egiten duen bidaia eta bizi dituen abenturak kontatzen ditu. Jonek txori bat nahi du eta amonak, etsita, flamenko bat oparitzen dio. Gero, baina, deskubritzen du flamenkoa, beraren oso lagun handi bihurtu dena, iraganean, abereak gaizki tratatzen zituen ume bat zela. Gauzak horrela flamenkoaren giza gurasoen bila abiatzen da munduan zehar. An-tzezlan osoan zehar, haurrak parte hartzaile aktibo bihurtzen dituzte antzezleek.

Cargando comentarios...



¡Hecho!



Recibirás un e-mail para confirmar tu registro.

Enseguida te devolvemos a la página en la que estabas donde verás tu comentario publicado

